




## T-kosistema

Tabakalera gazteen ikuspegitik pentsatuz.



## T-kosistema

Parte-hartze aktiboan oinarritutako prozesua, Tabakalera norberaren espazio gisa eraiki, pentsatu eta sentitzeko prozesua. Tabakalerari buruz modu orokorrean pentsatzeko proposamena, ingurune hurbileko gazteen ekimen, nahi, gustu, ideia eta kezak abiapuntu hartuta, Tabakalera sistema konplexu gisa aztertzeke ekimena.

HELBURUAK	METODOLOGIA	PARTAIDEAK	IRAUPENA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Parte-hartzea, sormena eta inplikazio hiritarra</b> bezalako baloreak sustatzea.</li> <li>• <b>Azterketa kritikoa</b> bultzatzea.</li> <li>• <b>Jarrera parte hartzailea eta sortzailea</b> lortzea.</li> <li>• <b>Parte-hartzaileak Tabakalerarekin harremanetan jartzea</b> haien erreferentzia lekua izan dadin.</li> <li>• Inguruko <b>gazteek</b> proiektuari buruz dituzten <b>ikuspegiak eta interesak</b> ezagutzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parte hartzailea, gogoetatsua, analitikoa eta sortzailea.</li> <li>• Norberaren esperientzien eta interesen inguruko <b>eztabaida eta azterketa</b> lantzeko jarduerak.</li> <li>• <b>Norberaren interesak</b> abiapuntu hartuta, talde-lana sustatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Partaide-kopurua: <b>15 lagun.</b></li> <li>• Adina: <b>16 – 25.</b></li> </ul>	<p><i>T-kosistema</i><sup>(INS)</sup></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>3 saio.</b></li> <li>• <b>2h /s.</b></li> </ul> <p><i>T-kosistema</i><sup>(TBK)</sup></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>4 saio.</b></li> <li>• <b>2h/s.</b></li> </ul>





Taldeak marko komuna lantzen du.

## 0. TESTUINGURUA

Zentroa definitzeko eta forma emateko asmoz, Tabakalera bertan, hiritar gazteei zuzendutako prozesu parte hartzailea garatzeko beharra ikusi zen.

Hiritarren parte-hartzea eskatzen zuen prozesua abian jartzeko, Tabakalera AMASTÉren laguntza eskatu zuen. Prozesuaren diseinuan elkarrekin lan egin ondoren, *T-kosistema* ekimena aurkeztu dugu.

## 1. LANTEGI IZENA

**T-kosistema** parte-hartze aktiboa sustatzen duen prozesua da. Helburua da Donostiako gazteek Tabakalera euren eremu gisa sentitzea, pentsatzea eta eraikitzea. Atal eta osagai guztiak elkarrekin harremanetan dituen sistema konplexua da: programazio kulturala eta bestelako jarduerak eta esperientziak, esperimentazioa eta edukien sorkuntza, parte-hartze aktiboa, publikoak, espazioa bizitzeko moduak, etab.

T-kosistemak bi dinamika desberdin ditu:

- **T-kosistema<sup>(INS)</sup>**, *lantegi-formatua duen dinamika da eta Donostiako institutuetan garatzeko asmoarekin sortu da.*
- **T-kosistema<sup>(TBK)</sup>**, *16 eta 25 urte bitarteko gazteei zuzendutako topalekua da. Tabakalera bertan ekintza eta hausnarketa uztartzeko eremua.*

**T-kosistema<sup>(INS)</sup>** Donostiako institutuetan garatzeko lantegi aktiboa da eta lantegi honetan, Tabakalera norberaren eremu gisa sentitzeko, pentsatzeko eta eraikitzeko aukera izango dugu.

Lantegi honen abiapuntua gazteek ikus-entzunezko kulturaren inguruan dituzten ideiak, kezak, gustuak, nahiak eta ekimenak dira. Hau guztia abiapuntu hartuta, Tabakalera euren eremu gisa eraikitzeko, komunean lan egitea ahalbidetuko duten proposamen zehatzak jarriko dira martxan.

**T-kosistema<sup>(TBK)</sup>** zentroaren mesedetan pentsatutako ekintzarako eta hausnarketarako topalekua da. Lau zita egingo ditugu lantegi zaharrean, gazteen gustuko izango den Tabakalera berria irudikatuz, aztertuz, definituz, konpartituz eta esperimentatuz.

## 2. HELBURUAK


Honako hauek dira T-kosistema-ren helburu zehatzak:

- Tabakalera proiektuaren inguruan **gazteek dituzten iritziak eta interesak ezagutzea.**
- Gaur egungo **gazteei hitza ematea.**
- **Tabakalera eta gazteen arteko harremanari abiapuntua ematea.**



Publikoaren, proposamenen eta parte-hartzearen inguruko ideiak.

*Sentitu, pentsatu eta eraiki  
Tabakalera norberaren espazio  
gisa.*



Taldeak proiektuari buruzko ideiekin marko komuna eraikitzen du.



Pertsonen inguruko eztabaida, balizko publikoak.

- Gazteen gustuak, kezak eta interesak kontuan hartuta, **Tabakalera pentsatzea eta definitzea.**
- **Partaideen artean**, jarrera parte hartzailea eta sortzailea sustatzea.
- Ikus-entzunezko kulturaren inguruko hausnarketa eta azterketa sustatzea, **beti ere talde-lana, kritika eta gazteen kezak eta gustuak oinarri hartuta.**
- **Errealitatearen azterketa kritikoa bultzatzea.**
- **Mezuak eta edukiak sortzeko** hainbat tresnen erabilera sustatzea (betikoak zein teknologikoak).
- **Konfiantzazko eremua sortzea**, ez soilik fisikoa baizik eta mentala ere, parte-hartzaileek haien kezak landu, nahiak gizarteratu eta ideiak eta iritziak komunean jartzeko aukera emango dien eremua, hain zuzen ere. Beti ere, modu askean eta euren gakoei jarraiki.

### **Bestalde, IA18 ekimenaren helburu orokorrak ditugu:**

- **Gazteen eta gizarte eragileen arteko (administrazioa, komunikabideak, talde sozialak, etab.)** bitartekotza-bideak eraikitzea.
- **Gazteen artean** parte-hartzea, sormena eta kontzientzia hiritarra bezalako baloreak sustatzea.
- **Gaur egungo gazteen tipologiak eta interesak** aztertzea (imaginarioa, nahiak, etab.).



Publikoaren behin-betiko mapa, proposamenak eta parte-hartzea.

*Ikus-entzunezko kulturaren lantegi berria osatzeko aukera eta ideia berriak.*


## **3. EDUKIAK**

### **T-kosistema** <sup>INS</sup>

**TBK-topoa eta TBK-zenosia.** Zeintzuk dira T-kosistemaren osagaiak? Topa itzazu osagaiak eta haien arteko harremanak. Zentro kultural berriaren errealitatea aztertuko dugu. Talde parte hartzailearen ikuspegitik zentroa osatzen duten hainbat elementu eta eragile aztertuko ditugu. Ideien, kontzeptuen eta irudien jasa egingo dugu eta lortutakoarekin Tabakaleraren inguruko markoa osatuko dugu. Hau guztia abiapuntu hartuta, geure nahiak eta proposamen pertsonalak irudikatuko ditugu.

**T-kosistema esperimentatzen.** T-kosistemaren parte al zara? Zein da zure forma? Nola funtzionatzen du zure organismoak? Ikus-entzunezko kulturaren lantegi berria eraikitzeke asmoz, ideiak, ekimenak, nahiak eta programazio propioak landuko ditugu. Ideia hauek eraiki egingo dira, proiektuan forma emango zaie eta grafikoki landuko dira proiektu honetara hurbiltzeko gakoak aurkituz.

**TBK-Kastika apur bat.** Espezieak eta estimulua. Zein erantzun jasotzen dugu T-kosistematik? Gazteen nahien eta gaur egungo Tabakaleraren arteko harremanak ezarriko ditugu eta proposamen berriak gaur egungo ikus-entzunezko lantegiaren mapan kokatuko ditugu. Proposamen berrien eta gaur egungo testuinguruaren arteko harremanak aztertuko dira, ekintza-edo harreman- hipotesiak eta gakoak landuz.




Eraikinaren aurrealdean eskua sartzeko proposamena.



Proposamenen arteko baten sormen-lana.

“...topalekuak, elkarrekin egoteko lekuak, Tabakalera egongela erraldoi gisa, bertara joan eta jendearekin egoteko aukera izateko”.



Publikoaren zehaztasunak proposamen konkretu batean.



Partaide baten proposamena.

## T-kosistema<sup>TBK</sup>

**TBK-topolariak Ikertzailea\***, zer kontaktzen dute horma hauek? Azter itzazu frogak eta osatu zeure istorioa.

Askotariko kontakteten ginkana erabiliz, Tabakalerako espazioa gertutik biziko dugu. Ibilbideak osatu, eraikinaren irudiak hartu eta ikus-entzunezko kulturaren lantegi berria osatzeko aukera eta ideia berriak pentsatu.

**TBK-zenosia aztertzen T-kosistemaren aberastasuna bere aniztasunean datza. Nork osatzen du TBK? Topa itzazu bere organismoak.**

Laborategi honen helburua pertsonaia berrien erakusgaiak osatzea da eta bide batez, zentro kultural berriaren eragileen azterketa egitea. Pertsonaia hauek diseinatuz, haien arteko harremanak ezagutuko ditugu eta denen artean, Tabakalera osatuko duten protagonisten sarea egituratuko dugu.

**Sare TBK-trofikoa Elikadura, harremana, produkzioa, bilakaera... Nola funtzionatzen du T-kosistemak? Ezar ezazu funtzionamendua.** Mapa mentalaren laguntzaz, kontzeptuen arteko harremanei esker eta egitura guztia osatuko duten irudiak sortuz, denen artean eraikiko dugu Tabakaleraren inguruko ideia komuna.

**TBK-sfera eraikitzen TBK ez dago bakarrik Donostiako biosferan. Zein ekosistemarekin dago harremanetan?**

Kanpoko hainbat eragile batu zaizkio ikus-entzunezko kulturaren lantegi berri honi, parte-hartzaileen taldeak, instituzioak, komunitateak... Tabakalera eta eragile hauen guztien arteko lotura eta harremanak ezarriko dira. Mahai gainean jarriko diren zati guztiak bilduz 3D puzzlea osatuko dugu.

## 4. METODOLOGIA ETA EKINTZAK

Lantegietan hausnarketa eta adierazpena jorratuko duten jarduerak egingo dira eta parte-hartzaileek euren interesei buruzko, eta hauek Tabakalera izan dezaketean lekuari buruzko, hausnarketa egiteko aukera izango dute.

**T-kosistema<sup>INS</sup>ean honako jarduera hauek landuko ditugu:**

- Landu beharreko gaira hurbiltzeko beroketa-jarduerak.
- Tabakaleraren inguruko eztabaida parte hartzaile eta analitikoak, zer nahi dute gertatzea Tabakalera?
- Norberaren proposamena aditzera emango duen irudia asmatu, sortu eta garatu.

**T-kosistema<sup>TBK</sup>an honako jarduera hauek landuko ditugu:**

- Landu beharreko gaira hurbiltzeko beroketa-jarduerak.
- Tabakaleraren inguruko eztabaida parte hartzaile eta analitikoak, zer nahi dute gertatzea Tabakalera?



TBK markoaren inguruko hainbat proposamen.

- Parte-hartzaileek lantegian landutako ideiak irudikatzeko hainbat jarduera plastiko egingo ditugu. Esaterako, Tabakalerako publikoak bilduko dituen maketa eraikiko dugu.

## 5. LANTALDEA

**Parte-hartzaile kopurua:** 15 lagun.

**Adina:** 16- 25 urte.

**Sexua:** Talde mixtoa

2 dinamizataile ere izan genituen.

**T-kosistema**<sup>(INS)</sup>

Donostiako Usandizaga Institutuko Diseinu Grafikoko Maila Ertaineko Moduluko 1. eta 2. ikasturteko ikasleek osatuko dituzte bi taldeak. Talde bakoitzak dinamizataile baten eta institutuko irakasle baten laguntza izango du.

Talde dinamikoak dira biak, ohituta daude proiektuetan kanpoko eragileekin batera (enpresa pribatuak eta instituzioak) parte hartzen.

**T-kosistema**<sup>(TBK)</sup>

Lan-saio bakoitza hasi eta bukatu egingo da, horrela parte-hartzaileek saio baten edo gehiagotan parte hartzeko aukera izango dute. Saio bakoitzean gutxi gorabehera 15 parte-hartzaile izango ditugu. Lan-saio hauek AMASTÉko bi pertsonen artean dinamizatuko dira. Saio guztietan Tabakalerako jendea izango dugu gurekin, dokumentazioa eskaintzeko eta bide batez, gazteekin etorkizunean baliagarri izan daitekeen harreman zuzena lantzeko.

## 6. EGUNAK ETA ORDUTEGIA

**T-kosistema**<sup>(INS)</sup>

2010eko otsaileko hiru sesio.

Otsailak 22.....2h (9:50-11:55h).

Otsailak 23.....2h (11:55-13:55h).

Otsailak 24.....2h (11:55-13:55h).

Bi taldeek aldi berean egingo dute lantegia.

**T-kosistema**<sup>(TBK)</sup>

2010eko otsaila eta martxoko lau sesio.

Otsailak 25.....2h (18:00-20:00).

Otsailak 26.....2h (18:00-20:00).


Martxoak 4.....2h (18:00-20:00).

Martxoak 5.....2h (18:00-20:00).


*“Musika bertan izango da. Bertako taldeek lan egiteko lekua izango dute, emanaldiak antolatuko dira eta bertako zein kanpoko artisten arteko topaleku izango da”.*



Zenbait partaidek euren ideiak azaltzen dizkiete gainontzeko taldekideei.



Taldeak TBK markoan kokatzen ditu bere proposamenak.



Taldeak egindako ideia-eskemaren zati bat.



Tabakalera eraikinean ibilbideak harrapatzen.



Planoan ibilbideak eta sentrazioak markatzen.

## 7. KOKAPENA

### T-kosistema<sup>(INS)</sup>

Usandizaga Institutua – Donostia.

Saioak egiteko hainbat gela ditugu, diseinu grafikoko biak eta baita teknologia- eta marrazki- gelak ere. Bestalde, argazkigintza platoa ere erabilgarri dugu.

Jardueraren arabera erabiliko dugu gela bakoitza, adibidez: mahaiak eta aulkiak behar ez dituzten jarduera dinamikoak platoan egingo ditugu eta estatikoagoak diren jarduerak, ideia-jasa edo irudien kontzeptualizazio eta diseinua, besteak beste, bestelako geletan egingo dira.

### T-kosistema<sup>(TBK)</sup>

Tabakalera eraikina.

Lantegi hau Tabakalera eraikinean egingo da eta saioetan hainbat jarduera landuko dira. Zenbait jarduerak eraikina arakatzeko aukera emango digute eta beraz, eraikinaren hainbat lekutan egingo dira. Beste zenbait jarduera, kontzeptualizazioa, azterketa eta eztabaida ardatz dutenak, alegia, Tabakalerako zuzendaritzak zituen bilera-gela zaharretako batean egingo dira.

## 8. MATERIALA

### Materiala:

#### T-kosistema<sup>(INS)</sup>

- Post-itak.
- T poster komuna.
- Proposamenak asmatzeko T'ak.
- Proposamenak garatzeko T'ak.
- Tabakalerako eskema-posterra.
- Tabakalera eskemak A4an.
- Paper-biribilki zuria.
- Bulego-materiala (errotuladoreak, boliak, arkatzak, itsasgarria, guraizeak, zinta itsasgarria, gometzak, folioak, barra-itsasgarria...).
- Mozteko askotariko aldizkariak.
- Paperak eta kartoi meheak.

#### T-kosistema<sup>(TBK)</sup>

- Ginkana egiteko probarako gutun-azalak.
- Tabakaleraren planoaren posterra.
- Publikoaren Franquensteins-ak (kartoi mehea A4)
- Publikoaren maketa egiteko eszenatokiak (kartoi mehea 1,5m x 1,5m)
- Mapa mentalerako T posterra.
- 3D puzzlea egiteko T'ak.

#### NOTA:

El material diseñado específico para cada sesión de para el taller, está disponible en:  
[http://www.casitengo18.com/es/proyectos/Tkosistema\\_01](http://www.casitengo18.com/es/proyectos/Tkosistema_01)



Erabilgaitako materialak eta sortutako hainbat ideia.



Espazio berbera, ibilbide eta sentsazio desberdinak.

*Askotariko kontaketen ginkana erabiliz, Tabakalerako espazioa gertutik biziko dugu. Ibilbideak osatu, eraikinaren irudiak hartu eta ikus-entzunezko kulturaren lantegi berria osatzeko aukera eta ideia berriak pentsatu.*



Publiko-irudien formak lantzen.

- Paper-biribilki zuria.
- Mugikorrek + memoria-txartelak.
- Ordenagailu 1 + irudiak editatzeko programak, bluetootha, txartel-irakurgailua.
- Bulego-materiala (errotuladoreak, boliak, arkatzak, itsasgarria, guraizeak, zinta itsasgarria, gometzak, folioak, barra-itsasgarria, goma itsasgarria...).
- Askotariko aldizkariak.
- Paperak eta kartoi meheak.

## Azpiegiturak:

### T-kosistema<sup>(INS)</sup>

- Ordenagailuak dituzten 2 gela (lehen saioa, taldearekin lehen kontaktua).
- Teknologia-gela.
- Marrazki-gela.
- Argazkigintza-platoa.

### T-kosistema<sup>(TBK)</sup>

- Tabakalerako erakusketa-gelak (beheko solairuan).
- Tabakalerako bilera-gelak (2. solairua).


## Parte-hartzaileek ekarri beharreko materiala:

- Argazki-kamera duen mugikorra (T-kosistema<sup>(TBK)</sup>-ren kasuan).

## 9. EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

Lantegia ebaluatzeko parte-hartzaileekin egindako ebaluazioaz gain, honako faktore hauek hartuko ditugu kontuan:

- Parte-hartze aktiboaren maila (bertaratzea, motibazioa...).
- Gazteen gogobetetze-maila (gazteen ebaluazioa).
- Harreman eta enpatia maila.
- Taldearen harreman pertsonalak.
- Taldearen hausnarketa-gaitasuna
- Sormen-gaitasuna..
- Taldearen espiritu kritiko eta autokritikoaren maila.
- Lantegian egindako gauzen eta emaitzen maila.



Publikoaren eskemaren gainean egindako pertsonaien maketa.



TBKren balizko publikoa islatzen duten pertsonaiak.

*“...askotariko pertsonak bilduko dituen lekua izatea nahiko nuke, umeengandik hasi eta 60 urteko (edo gehiagoko) pertsonetara eta denek izan dezatela aukera proposamenetan parte hartzeko. Nire aitona imajinatzen dut beste garai bateko istorioak kontatzen edo erakusketetan gidari lanak egiten”*



Parte-hartzaileen proposamenak.

## 10. DOKUMENTAZIOA

Tabakalera proiektuaren balizko lan-ildoei buruzko informazioa:

<http://www.tabacalera.eu/>

Lan-prozesua saioretan ez ezik, blogean ere azalduko da:

<http://www.tabacalera.eu/blog-tabacalera/?lang=es>

IDENSITATen liburua

<http://www.idensitat.org/blog/2008/04/lilibre-libro-book-idensitat.html#1>

Liburu honetan mapa mentalak egiteko eta erabiltzeko teknikak azaltzen dira:

“The mind map book” / “El libro de los mapas mentales” Tony Buzan, Ed. Urano, 1996.

Mapa mentalei buruzko informazio orokorra:

[http://es.wikipedia.org/wiki/Mapa\\_mental](http://es.wikipedia.org/wiki/Mapa_mental)

Mapa mentalei buruzko bloga:

<http://www.in-fluyendo.blogspot.com/>

Xmind, programa informatiko honek ordenagailuarekin mapa mentalak egiteko aukera eskaintzen digu:

<http://www.xmind.net/>

## 11. LAN-ERANSKINAK

Hurrengo eranskinetan lantegiaren saio bakoitzeko bidai orria topatuko duzu.

**T-kosistema<sup>(NS)</sup>:**

1eranskina: 1. SAIOA

2eranskina: 2. SAIOA

3eranskina: 3. SAIOA

**T-kosistema<sup>(TBK)</sup>:**


4eranskina: 1. SAIOA

5eranskina: 2. SAIOA

6eranskina: 3. SAIOA

7eranskina: 4. SAIOA





Parte-hartzaile batek egindako Tabakaleraren mapa mentala.

*Taldeek proiektuaren gaineko oso ikuspegi desberdinak dituzte. Alde batetik, Tabakalera topaleku gisa ikusten dute batzuk eta beste batzuk, aldiz, etorkizuneko artistek arrakasta lortzeko erabiliko duten plataforma gisa.*

## 12. KONTAKTUA

**IA 18** irabazi-asmorik gabeko elkarte da. Elkarte honek gizarte zibilaren parte-hartzea eta elkarerragina oinarri duten proiektuak erabiliz, aniztasun kulturala sustatzen du.

**IA 18** nerabeei zuzendutako eta ekintza kulturalaren inguruko ekimenak garatzen dituen elkarte da. IKTak (informazio- eta ezagutza -teknologiak) eta sormena zein bitartekaritza kulturala lantzen dituzten estrategia pedagogikoak erabiliz, gazteei ematen die hitza, hiritar aktibo gisa inguruan duten mundua definitzen parte har dezaten:

### IA18

Aretxaga, 10  
48003 Bilbao  
946 053 468

[www.casitengo18.com](http://www.casitengo18.com)  
[info@casitengo18.com](mailto:info@casitengo18.com)

Fitxa hau Creative Commons 3.0 España baimenarekin erregistratu da. Aske zara zure taldearekin lantegi hau egiteko, baina gogora ezazu ez dagoela formula magikorik eta hobe dela edukiak zure testuinguruaren eta taldearen beharren arabera moldatzea.



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.es>

Fitxa hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin egin da.





## 1. SAIOA

<b>HELBURUAK</b>	<p><b>Partaide-taldea ezagutzea.</b>  <b>Norberaren interesak ezartzea.</b>  <b>Norberaren interesetatik hasita, Tabakalera nolakoa izan beharko lukeen pentsatzea eta eztabaidatzea.</b>  <b>Lan egiteko marko komuna ezartzea.</b></p>
------------------	--

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
10 min.	<p><b>Aurkezpena.</b></p> <p><b>Azalpen laburra.</b></p>	<p><i>Zerk osatzen du t-kosistema?</i>  <i>Topa itzazu bere organismoak eta haien arteko harremanak.</i>            Zer da Tabakalera eta zein da prozesu parte hartzailearen xedea.</p>	<p>Koloretako post-itak.            Koloretako errotuladoreak.            Boligrafoak.            Arkatzak.            Borragomak.</p>
10 min.	<b>Beroketa-jarduera.</b>	<p>Landu beharreko gaiarekin ohitzea.</p>	<p>T-aren poster erraldoi eta komuna.</p>
30 min.	<p><b>Ideia-jasa.</b>  <b>3 T'ak:</b>            - Publikoak            - Proposamenak            - Parte-hartzea</p>	<p>Tabakaleraren azterketa.            Norberaren interesak.            Nortzuk hartuko dute parte Tabakalera, zer gertatzen da, etab.</p>	
30 min	<b>T komuna eraiki.</b>	<p>Tabakaleraren marko komuna.</p>	
15 min.	<b>Ideiak komunean jarri.</b>		
15 min.	<b>Norberaren proposamena pentsatzen hasteko jarduera</b>	<p>Norberaren desioak eta interesak.</p>	

**Lantegiaren aurkezpena**----- **10 min.**  
 Lantegia eta helburuak aurkeztuko dira eta Tabakalera zer den azalduko da.

**Beroketa-jarduera**----- **10 min.**  
 Parte-hartzaileen izenak ezagutzeko eta euren burua aurkezteko ekintza azkarra. Kasu honetan partaideak elkarren artean ezagutuko dira, baina ez hezitzaileekin. Lantegian landuko dituzten gustuak, interesak, etab. plazaratzeko ere baliagarri izango da ekintza hau. Partaide bakoitzak honako formula hau erabiliko du:  
 "(Izena) naiz, (XXXXXX) nago eta (XXXXX) egiten/ikusten dut".  
 Adibidez: "Itziar naiz, ilargian nago eta puntua egiten dut".

**Ideia-jasa**----- **30 min.**  
 Partaide bakoitzari hainbat koloretako 12 post-it banatuko zaizkio; kolore bakoitzeko lau post-it. Kolore bakoitzak Tabakalera aztertzeo kontzeptu edo gai bati egiten dio erreferentzia:

- Publikoak ----- Laranja.
- Proposamenak ----- Horia.
- Parte-hartzea ----- Arrosa.

Gai bakoitzarentzat dinamizatzaileek lau egoera edo item dituzte, parte-hartzaileei helaraziko dizkiete eta hauek bakoitzari erantzun bat eman beharko diote post-it batean.



## Publikoak:

- Hiriko hainbat taldek antolatzen duten ikus-entzunezko jaialdia dago. Zeintzuk dira talde horiek eta nork hartuko du parte jaialdian?
- Astean zehar jende asko hurbiltzen da mediatekara. Besteak beste:
  - Naturaren soinuak biltzen dituzten soinu-artxiiboak bilatzera doan pertsona. Nor da pertsona hori?
  - Beste batek emakumeak XX. mende hasieratik diseinuan izan duen lekuari buruzko informazioa bilatzen du. Nor da?
  - Hirugarren pertsona batek komiki japoniarrak hartu ditu maileguan. Nor da?
- Topaketa teknologikoa dago Tabakaleran. Kultura digitalarekin harremana duen jendearen arteko 4 eguneko elkarbizitza da. Egin ezazu han ikusten duzun pertsona baten irudia eta idatzi zenbait ezaugarri.

## Proposamenak:

- Maiatzeko larunbatetan egiten diren lantegietan, esku-hartze eremuan eta TBKafean jende asko eta askotarikoa biltzen da, handik hona mugituz hiru eremuen artean. Zer gertatzen da eta zergatik?
- Tabakalerako lantegietan topatu dituzun eta zure lanerako baliagarri izango zaizkizun hiru objektu edo material marraztu itzazu. Esan ezazu era berean, zer egin behar duzun.
- Ostegun arratsaldero Tabakalerako telebistarako hainbat eduki sortzen dira. Jende askok hartzen du parte jarduera honetan. Aipa itzazu sortzen diren hiru eduki eta nola eta nork sortzen dituen.

## Parte-hartzea:

- Zine-aretoetan animazio-jaialdia dago. Nork egin ditu animazioak eta zein izan da animazio horiek hautatzeko prozesua?
- Platoan emakume-talde bat dago. Zer ezaugarri ditu taldeak eta zer egiten dute? Erabil itzazu irudiak eta testua erantzuteko.
- Hiru hirien artean gertaera komuna antolatzeko proiektua dute. Zein hiri dira, zer ari dira antolatzen eta nola lan egiten dute antolatzen ari diren pertsonak?

Parte-hartzaileek egoera edo item bakoitzeko, gehienez 2 minutu izango dituzte erantzuteko.

### T komuna eraiki-----30 min.

Parte-hartzaileak hiru taldetan banatuko dira eta talde bakoitzak gai jakin baten post-itak hartuko ditu. Post-it horiek euren irizpideen arabera antolatu eta kokatu behar dituzte, ondoren, T komunaren posterrean jartzeko.

Parte-hartzaileei iruditzen baldin bazaie zerbait falta dela eta ez dagoela inongo post-itean, beharrezko iruditzen zaien hori gehituko dute.

### Ideiak komunean jarri-----15 min.

Talde bakoitzak gainontzekoei azalduko die bildu duen informazio guztia, beti ere, informazio hori osatzeko edo hobetzeko aukera emanez.

### Norberaren proposamena pentsatzen hasteko jarduera-----15 min.

Partaide bakoitzak post-it bat hartu eta honakoa jarriko du bertan: zaletasun bat, animalia bat eta kolore bat. Burura datozkion lehenak.

Behin hau eginda, hurrengo saioan egin beharko dutena azalduko zaie, post-it hori baliagarri izan daitekeelako (edo ez) hurrengo egunean egin beharko duten proposamenerako.



## 2. SAIOA

### HELBURUAK

Partaide-taldeak **jarrera parte hartzaile eta sortzailea** izan dezan lortzea. **Tabakalera** proiektuaren inguruan **gazteek dituzten ikuspegi eta interesak** ezagutzea. Gazteen **gustu, kezka eta interesetatik** abiatuta, **Tabakalera berria pentsatzea eta definitzea.**

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
10 min.	Saioaren aurkezpena, beroketa-jarduera eta T'en banatzea.	<i>T-kosistemaren parte al zara? Zein forma hartzen duzu? Nola funtzionatzen du zure organismoak?</i>	Proposamenentzako T'ak. Irudiaren diseinurako T'ak. Koloretako errotuladoreak. Boligrafoak. Arkatzak. Borragomak. Aldizkariak. Itsasgarria.
15 min.	Proposamen pertsonalaren asmaketa.	Norberaren proposamenak.	
10 min.	Proposamen pertsonalen txanda azkarra.	Proposamenen aurkezpena.	
20 min.	Proposamen pertsonalaren 3 aldaketa.	Proposamen pertsonalentzako ideia berriak. Bestelako publikoak eta ikuspuntuak..	
10 min.	Aldaketek zure proposamenari ekarriko diotena aztertu.	Proposamen pertsonalen garapena.	
40 min.	Zure proposamena zabaltzeko erabiliko duzun irudiaren diseinua.	Irudiak, edukiak zabaltzeko irudiak.	
5 min.	Hurrengo saioan egingo diren proposamenen aurkezpen-ordena erabaki.	Denboraren optimizazioa.	

### Saioaren aurkezpena, beroketa-jarduera eta T'en banaketa -----10 min.

Labur-labur azalduko da saioan zehar egingo den lana eta nola egingo den.

Parte-hartzaile bakoitzak post-it bat hartuko du eta bertan, burura etorri ahala, honakoak idatziko ditu: **auzokoren bat, senideren bat eta Donostiatik kanpo bizi den ezagunen bat.**

Behin idatzita, gorde post-ita.

T'ak banatuko dira. (Lantegi honetarako berariazko materiala).

### Proposamen pertsonalaren asmaketa-----15 min.

Parte-hartzaile bakoitzak Tabakalera gertatzen den zerbait proposatuko du. Aurreko saiotik denbora izan dute proposamena azaltzeko asmoz, gustatuko litzaiekeena pentsatzeko, argazkiak ateratzeko, marrazkiak egiteko, etab.

Proposamen bakoitzak honakoak izan behar ditu kontuan: zein da proposamena, gaia, publikoa, parte-hartzea, nork proposatzen duen, etab.

### Proposamen pertsonalen txanda azkarra-----10 min.

Parte-hartzaile bakoitzak labur-labur azalduko die bere proposamena gainontzekoei: izenburua eta gaia.

**Proposamen pertsonalaren 3 aldaketa ----- 20 min.**

Parte-hartzaileak altxa egingo dira, bakoitzak bere post-ita hartuko du eta lekuz aldatuko dira, lehengo tokian utzita proposamena duen Ta. Lekuz aldatzeko dinamizatzaileak emango dituen arauak jarraituko dituzte.

Behin leku berrian egonda, dinamizatzaileak esango die aurrean duten proposamena aldatu behar dutela, lehen aipatu duten auzokoa izango balira bezala.

Prozesu hau beste bi aldiz errepikatuko da, lehen proposamenaren 3 aldaketak osatu arte. Bigarren aldian, senidea izango balira bezala aldatu behar dute proposamena eta hirugarrenean, Donostiatik kanpoko norbait izango balira bezala.

**Aldaketek zure proposamenari gehitzen diotena aztertu ----- 10 min.**

Hasierako proposamenen aldaketa-prozesua bukatutakoan, parte-hartzaile bakoitza bere lekura bueltatuko da eta gainontzeko partaideek bere proposamenari egindako ekarpenak aztertuko ditu, hasierako proposamena hobetu edo osatzeko.

Parte-hartzaile bakoitzak bere proposamena garatzean, kontuan hartu nahi dituen ideiak azpimarratuko ditu.

**Zure proposamena zabaltzeko erabiliko duzun irudiaren diseinua----- 40 min.**

Irudiaren diseinua egiteko T'ak banatuko dira. Partaide bakoitzak bere ideia garatuko du eta ideia hori zabaltzeko erabiliko duen irudia sortuko du. Azken irudia T'aren erdiko laukian sortuko da. Alboetako eta azpiko laukiak proposamen bakoitzaren ideiak garatzeko erabiliko dira, publikoa, proposamenak, gaiak eta parte-hartzea kontuan hartuta.

Parte-hartzaileek saiotik kanpo buka dezakete euren irudia, baina hurrengo saiorako bukatuta izan beharko dute.

**Hurrengo saioan egingo diren proposamenen aurkezpen-ordena erabaki ----- 5 min.**



### 3. SESIOA

#### HELBURUAK

**Konfiantzako eremua sortzea**, parte-hartzaileek euren interesak garatzeko aukera izan dezaten eta **iritzia, ametsak eta kezak** komunean jar ditzaten.  
Gazteen artean **parte-hartzea, sormena edota hiritar kontzientzia** bezalako baloreak **sustatzea**.  
**Talde-lan kritikoa bultzatzea**, gazteek **ikus-entzunezko kulturaren** inguruan dituzten kezak eta gustuak **hausnarketaren eta azterketaren** bidez landu ditzaten.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
15 min.	<b>Aurkezpenen prestaketa.</b>	<i>Espezieak eta estimuluak. Zein erantzun jasotzen dugu T-kosistematik?</i>	Poster-eskema. Tabakalera. Tabakalera eskemak A4an.
40 min.	<b>Proposamenen eta hauek zabaltzeko irudien aurkezpena.</b>	Proposamenen aurkezpena eta oinarrizko kontzeptuak aztertzea.	Koloretako errotuladoreak. Errotuladore lodiak. Boligrafoak. Arkatzak. Borragomak. Aldizkariak. Itsasgarria.
20 min.	<b>Proposamen bakoitza gaur egungo Tabakaleraren markoarekin harremanetan jarri, talde txikitik.</b>	Proposamenen, oinarrizko kontzeptuen eta Tabakaleraren markoaren arteko harremanak.	
30 min.	<b>Proposamen bakoitza gaur egungo Tabakaleraren markoarekin harremanetan jarri, denok batera.</b>	Gehien interesatzen zaizkigun proposamen eta kontzeptuak aukeratu eta Tabakaleraren markoa definitu denen artean.	
5min.	<b>Agurra.</b>		

**Aurkezpenen prestaketa**-----**15 min.**  
Parte-hartzaile bakoitzak bere proposamenaren irudia bukatu eta aurkezpena prestatuko du.

**Proposamenen eta hauek zabaltzeko irudien aurkezpena** -----**40 min.**  
Proposamenak taldeari aurkeztuko zaizkio. Parte-hartzaile bakoitzak 2 minutu ditu bere proposamena eta komunikaziorako irudia aurkezteko.  
Aurkezpenak egin bitartean, aipatzen diren kontzeptuak idatziko dira paper zuri batean, heziketa, erakusketak, komunikazioa, lantegiak, produkzioa, etab.

**Proposamen bakoitza gaur egungo Tabakaleraren markoarekin harremanetan jarri**-----**20 min.**  
Behin aurkezpenak bukatuta, parte-hartzaileak hiru taldetan banatuko dira. Talde bakoitzak aurkezpenetan atera diren 3-5 kontzeptu hartuko ditu eta Tabakaleraren eskeman ipiniko ditu bere proposamenak tokatu zaizkion kontzeptuekin harremanetan jarri. Kontzeptu bakoitza irudikatze irudia ere diseinatu beharko dute.

**Proposamen bakoitza gaur egungo Tabakaleraren markoarekin harremanetan jarri**-----**30 min.**  
Taldea bakoitzak landutakoa poster handian adieraziko du eta proposamenen eta kontzeptuen arteko harremanak aztertuko dira, ondoren, dena posterrean jartzeko.

**Agurra**-----**5 min.**



## 1. SESIOA

### HELBURUAK

Talde parte hartzaileak inguruarekin dituen harremanak ezagutzea. Azterketa-lana egiteko **norberaren eta taldearen interesak ezartzea**. **Interes pertsonalen** arabera, **Tabakalerak** nolakoak izan behar duen **pentzatzea eta eztabaidatzea**.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
10 min.	<b>Aurkezpena.</b>	Lanaren faseak.	Koloretako post-iak.
10 min.	<b>Beroketa-jarduera.</b>	Gainontzeko parte-hartzaileak hobeto ezagutu.	Koloretako errotuladoreak.
90 min.	<b>Ginkana</b> 1. <b>Ibilbidea mugikorrek grabatuz.</b> 2. <b>Tabakalerako 5 blokeak gutun-azaletan.</b> 3. <b>Aktiboa/pasiboa.</b> 4. <b>Fotomatoia</b> 5. <b>Beste talde baten ibilbidea egin haren jarraibideak kontuan hartuz.</b>	Norberaren desio eta interesak. Espazioa bizi. Espazioan bizitzeko moduak.	Boligrafoak. Arkatzak. Borragomak. Mugikorrek. Tabakaleraren mapa erakusten duen poster handia.
10 min.	<b>Ideiak komunean jarri.</b>		

**Lantegiaren aurkezpena**----- **10 min.**  
Lan-prozesuaren faseak labur azalduz, lantegia aurkeztuko dugu.

**Beroketa-jarduera**----- **10 min.**  
**Izen-iniziala:**  
Parte-hartzaile bakoitzak bere izenaren inisiala post-it batean idatziko du eta soinean jarriko du. Bakoitzak gainontzekoen post-itetan eta inisiala abiapuntu hartuta, iruditzen zaion izena idatziko du.

**Ginkana**----- **90 min.**  
Partaide-kopuruaren arabera, ginkana banaka edo binaka egingo dugu. Joko honen bitartez, parte-hartzaileek Tabakalerako espazioa zuzenean biziko dute eta euren sentipenak kontuan hartuta, han barruan zer eta nola gertatu litekeen imajinatuko dute.

- Ibilbidea mugikorrek grabatuz:** parte-hartzaile edo bikote bakoitzari mugikor bat emango diogu eta 15 minutu izango ditu eraikinean zehar nahi bezala mugitzeko eta ibilbide guztia grabatzeko. Bukatzerakoan, partaide edo bikote bakoitzak, Tabakalerako maparen posterrean egindako ibilbidea marraztuko du eta ondoren, ibilbide hori egingo duten parte-hartzaileentzako jarraibideak pentsatuko ditu.
- Tabakalerako 5 blokeak gutun-azaletan, 5 zentzumen eta proposamen bat:** partaide edo bikote bakoitzak 2 gutun-azal aukeratuko ditu, bata blokeena eta bestea zentzumenena. Aukeratutako bi gutun-azaletan dagoena kontuan hartuz, Tabakaleran egin daitekeen proposamen bat pentsatuko beharko dute. Proposamena non egin daitekeen pentsatuz, mapan kokatuko dute pentsatutakoa.
- Aktiboa/pasiboa:** bi ate daude, bakoitzak kolore bateko pegatina dauka. Parte-hartzaile bakoitzak sartzeko gela bat aukeratuko du. Batean, zerbait entzungo dute eta bestean, zerbait grabatu beharko dute. Parte-hartzaileek aukeratzekoan, badakite gela batean zerbait egin beharko dutela eta bestean, zerbait jaso, baina ez dakite zehazki zer izango den.



4. Beste talde baten ibilbidea egin aurreko partaide edo bikoteak eman dizkizun jarraibideei kasu eginez.

**Ideiak komunean jarri**-----**10 min.**

Egindako lana komunean jarriko dugu espazioaren plano batean, sentipenak eta sortutako proposamen berriak idatziz.





## 2. SAIOA

<b>HELBURUAK</b>	<p>Azterketa-lana egiteko, <b>norberaren eta taldearen interesak ezartzea</b>.  <b>Interes pertsonalen</b> arabera, <b>Tabakalerak</b> nolakoa izan behar zuen <b>entsatzea eta eztabaidatzea</b>.  <b>Konfiantzazko eremua sortzea</b>, parte-hartzaileek euren interesak garatzeko aukera izan dezaten eta <b>iritziak, ametsak eta kezak</b> komunean jar ditzaten.  <b>Norberaren interesak oinarri hartuta, Tabakalerak</b> nolakoa izan beharko lukeen <b>taldean entsatzea eta eztabaidatzea</b>.</p>
------------------	--

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
10 min.	<b>Aurkezpena.</b>	Hurrengo saioko lanaren sarrera gisa, aurreko saioan landu zenaren laburpena egingo da.	Koloretako post-itak. Koloretako errotuladoreak. Boligrafoak. Arkatzak. Borragomak. Aldizkariak. Guraizeak. Kuterrak. Kartoi mehea.
20 min.	<b>Euri-jasa: publikoak.</b>	Ahal duten pertsonak.	
15 min.	<b>Nola erlazionatzen dira pertsona horiek Tabakalerarekin, zergatik joaten dira hara, etab. komunean jarri. Landuko diren pertsonaien aukeraketa.</b>		
60 min.	<b>Pertsonaien katetoak sortu.</b>	Pertsonaien artean egon daitezkeen harremanak.	
15 min.	<b>Komunean jarri.</b>		

**Lantegiaren aurkezpena**-----**10 min.**  
Lan-prozesuaren faseak labur azalduz, lantegia aurkeztuko dugu.

**Euri-jasa: publikoak**-----**20 min.**  
Parte-hartzaile guztien artean Tabakaleran parte har dezaketen pertsonen inguruko euri-jasa egingo dugu. Era berean, Tabakaleran parte hartzeko moduei buruzko eztabaida ere egingo dugu.

**Komunean jarri**-----**15 min.**  
Euri-jasan atera diren ideiak laburbildu eta partaide bakoitzak pertsonaia bat edo gehiago aukeratu dituzte "franquenstein" bat eraikitzeko.

**Pertsonaien katetoak sortu**-----**60 min.**  
Parte-hartzaile bakoitzak aukeratu duen pertsonaiaren katettoa egingo du. Sortuko duten pertsonaiari edukia emateko hausnarketa egingo dute, nolakoa da pertsonaia, bere ezaugarriak, zaletasunak, etab. Katettoa egiteko irudia eta testua erabiliko dituzte, marrazkiak, collageak, etab. Kateto guztiak Tabakaleraren maketan bilduko ditugu eta euren eta espazioaren arteko harremanak markatuko ditugu.

**Komunean jarri**-----**15 min.**  
Parte-hartzaile bakoitzak egindako katettoa aurkeztuko du gainontzekoen aurrean.



### 3. SAIOA

#### HELBURUAK

Azterketa-lanerako **norberaren eta taldearen interesak ezartzea.**

**Talde-lan kritikoa bultzatzea**, gazteek **ikus-entzunezko kulturaren** inguruan dituzten kezka eta gustuak **hausnarketaren eta azterketaren** bidez landu dituzten.

**Konfiantzazko eremua sortzea**, parte-hartzaileek euren interesak garatzeko aukera izan dezaten eta **iritziak, ametsak eta kezka** komunean jar ditzaten.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
10 min.	<b>Aurkezpena.</b>	Parte-hartzaile bakoitzak bere burua aurkeztuko du labur-labur.	Koloretako post-itak. Boligrafoak. Arkatzak. Borragomak. Mapa mentalerako T posterra.
20 min.	<b>Tabakalera..... izango balitz...</b>	Tabakalera eta partaideen gustuak harremanetan jartzeko jokoa.	
10 min	<b>Mapa mentala egiteko azalpena.</b>	Buru mapak.	
20 min	<b>Banakako mapa mentala.</b>	Parte-hartzaile bakoitzak Tabakaleraren mapa mentala egingo du bere gustu eta interesak kontuan hartuta.	
30 min.	<b>Guztien arteko mapa mentalaren eraketa.</b>	Denen artean, mapa mental komuna nola egingo den adostuko da.	
20 min.	<b>Ondorioak.</b>		

**Lantegiaren aurkezpena**----- **10 min.**

Lan-prozesuaren faseak labur azalduz, lantegia aurkeztuko dugu.

**Tabakalera.... izango balitz**----- **20 min.**

Parte-hartzaile bakoitzak folio batean idatziko du Tabakalera zer izango litzatekeen ondoren agertzen den zerbait izango balitz:

1. Animalia
2. Pertsona ezaguna
3. Kolorea
4. Makina
5. Bideojokoa
6. Jokoa
7. Janaria
8. Liburua
9. Objektua
10. Garraioa
11. Kirola
12. Herria
13. Abestia
14. Telesaila
15. Edaria

Lantegiko arduradunak banan-banan esango die parte-hartzaileei "Tabakalera... izango balitz...".



**Mapa mentala egiteko azalpena**----- **10 min.**  
Buru mapen azalpena txikia emango da.

**Banakako mapa mentala**----- **20 min.**  
Banaka edo bikoteka, "izango balitz" horretatik atera dituzten kontzeptuekin Tabakaleraren mapa mentala osatuz joango dira.

**Guztien arteko mapa mentalaren eraketa**----- **30 min.**  
Banakako mapa mentalak komunean jarriko ditugu eta denen artean, guztiena izango den mapa mentalean agertuko diren kontzeptuak adostuko ditugu. Mapa mentala osatzeko aldizkariak, marrazkiak eta testua erabiliko ditugu.

**Ondorioak**----- **20 min.**  
Saioa denen artean eztabaidatuko dugu atera diren ideia garrantzitsuenak biltzeko.



## 4. SAIOA

### HELBURUAK

Inguruko **gazteek Tabakalerari buruz dituzten iritziak eta interesak ezagutzea**. Azterketa-lanerako **norberaren eta taldearen interesak ezartzea**. **Konfiantzazko eremua sortzea**, parte-hartzaileek euren interesak garatzeko aukera izan dezaten eta **iritziak, ametsak eta kezak** komunean jar ditzaten.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
10 min.	Lantegiaren aurkezpena.	Lantegia azaldu labur-labur.	Koloretako post-itak.
10 min.	Beroketa-jarduera.	Parte-hartzaile bakoitzak bere burua aurkeztuko du.	Koloretako errotuladoreak. Bolígrafoak. Arkatzak.
60 min.	Desioen T'ak.	Parte-hartzaile bakoitzak nahi bezala osatuko du T'a.	Borragomak.
25 min	Komunean jarri.		Desioen T'ak.
15 min.	Lantegiaren amaiera.		

**Lantegiaren aurkezpena**-----10 min.  
Lan-prozesuaren faseak labur azalduz, lantegia aurkeztuko dugu.

**Beroketa-jarduera**-----10 min.  
Parte-hartzaile berriak egon ezker, bakoitzak bere burua aurkeztuko du.

**Desioen T'ak**-----60 min.  
Parte-hartzaile bakoitzak testua eta irudia erabiliz, T baten barruan ematen zaizkion lau galderei erantzun die.

1. Zein erakunde, talde edo elkartetako partaide zara eta nahiko al zenuke egiten duzuen lana Tabakaleran egin ahal izatea?
2. Tabakaleran izan nahiko zenukeen esperientzia kulturala.
3. Tabakaleran izatea nahiko ez zenukeen zerbait.
4. Tabakaleraren mugetatik at geratzen den proposamena, baina gizarte kontuekin harremana duena eta Tabakaleran lekua izatea nahiko zenukeena?

**Komunean jarri**-----25 min.  
Parte-hartzaile bakoitzak bere T'a gainontzekoekin batera jarriko du eta denen artean, T guztiak erabiliz, ausazko eraikuntza bat egingo dugu.

**Lantegiaren amaiera**-----15 min.